

## Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

Ingurumenaren kontserbazioarekiko konpromisoa urte osoan zehar izan behar badugu ere, ekainaren 5ean ospatzen da Ingurumenaren Nazioarteko Eguna. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ezarri zuen, 1974an. Urtero, gai bai hartzen da ardatz munduko biztanleak sentikortzeko, eta herrialde bat hautatzen da anfitrioi. Iaz, Txina izan zen, eta gaia, airearen kutsaduraren aurkako borroka. 2020an, Kolonbiak hartu du lekukoa, eta biodibertsitatea izango da gaia. Zalantzarik gabe, biodibertsitatearen kontserbazioaren adibide bat izan liteke Artikutza, Bertiz edo Iratiko ohianaren zati bat baita Ingurumenaren Nazioarteko Egunean aipatzeko moduko erreferenteak ere.

Mundu osoko hiri eta herriek makina bat ekintza eta hitzaldi programatzen dute, baita inguruneak garbitzeko ekintzak planifikatu eta ingurumen-heziketarako tailerrak egin ere. Aurten, kontuan hartuta gauden egoera, beste modu batean ospatuko da eguna ziur aski, baina hedatu behar duen mezuak bere horretan jarraitu behar du.

**Aldaketa klimatikoaren kontra** egiteko eta bereziki biodibertsitatea babesteko erronka bat proposatzen dizugu:

Gehiago  
jakiteko



Kontsultatu zer  
gehiago egin  
dezakezun web  
gune honetan



**Biodibertsitatea babesteko ekintza eta ohitura ugari eraman ditzakegu.**

Adibidez, arraina erosi modu iraunkorrean edo kutsatzen ez duten produktuak erabili etxea garbitzeko.